



## Ostegunean A-15 errepidea gauz itxiko da Andoain eta Berastegi artean AT Sistemako arku berria jartzeko Belabietako tunelaren parean



***Abenduaren 15eko 23:00etatik ostiraleko 06: 00etara errepidea itxita egongo da bi noranzkoetan***

Bidegi foru agentziak abenduaren 15ean, osteguna, jarriko du A-15 errepidean, Belabietako tunelaren parean, Villabonan, 150. kilometro puntuan, AT Sistemako arku berrien laugarrena eta azkena. Arkua lekuz aldatzeko eta muntatzeko lanak direla eta, errepidea itxi beharko da Andoain eta Berastegi artean, bi noranzkoetan, osteguneko 23: 00etatik ostiraleko 06: 00ak arte.

Bidegik, ahal den neurrian, puntu horretako joan-etorriak aurreratzea edo atzeratzea gomendatzen du, itxierarekin bat ez etortzeko. Alternatiba gisa, ibilgailu arinak GI-2130 Tolosa-Berastegi errepidetik desbideratuko dira. Trafiko astunak, Iruñerako noranzkoan, N-1 errepidetik jarraitu behako dute Etzegarate-Altsasurantz eta hemen A-10 errepidea hartu Irurtzunera heltzeko. Irungo noranzkoan doazenek, Berastegirakoak ezik, ibilbide bera egin beharko dute kontrako sentsuan. Mozketak iragarrita egongo dira A-15 errepidearekin lotzen duten mezularitza aldakorreko paneletan, eta desbideratzeak seinaleztatuta egongo dira. Egitura berriak Etzegaraten, Tolosan Beasainen, Ordizian, Andoainen edo Astigarragan daudenen ezaugarri berberak izango ditu: ia 30 metroko luzera eta 16 tonatik gorako pisua duen egitura. Matrikulak irakurtzeko eta ibilgailuaren jarraipena egiteko 12 kamera izango ditu, argi infragorriarekin, 6 noranzko bakoitzean, eta 12 antena TAG gailuak irakurtzeko eta ibilgailuak kokatzeko, baita ere 6 noranzko bakoitzean. Era berean 6 laser detektagailu izango ditu, hiru noranzko bakoietzerako eta horiek egingo dute ibilgailuen detekzio bolumetrikoa eta sailkapena.



## El jueves cierre nocturno de la A-15 entre Andoain y Berastegi para colocar el nuevo pórtico de AT Sistema a la altura del túnel de Belabieta



***Desde las 23:00h del jueves 15 de diciembre y hasta las 06:00h del viernes la carretera estará cortada en ambas direcciones***

La agencia foral Bidegi instalará este jueves 15 de diciembre en la A-15, a la altura del túnel de Belabieta, en Villabona, en el pk 150, el cuarto y último de los nuevos pórticos de AT Sistema. La operativa del traslado del dintel y su montaje obligará a cortar la carretera en ambos sentidos entre Andoain y Berastegi desde las 23:00h del jueves hasta las 06:00h del viernes.

Bidegi recomienda en la medida de lo posible adelantar o retrasar los desplazamientos por este punto para no coincidir con el cierre. Como alternativa, los vehículos ligeros serán desviados por la carretera GI-2130 Tolosa-Berastegi. Los tráficos pesados en sentido Iruña-Pamplona deberán continuar por la N-1 hacia Etzegarate-Altsasua y aquí tomar la A-10 hacia Irurtzun. Los que vayan en dirección Irun, excepto a Berastegi, deberán efectuar el mismo recorrido en sentido contrario. Los cortes estarán anunciados en los paneles de mensajería variable de las carreteras que conectan con la A-15 y los desvíos estarán señalizados. La nueva estructura tendrá las mismas características que las existentes en Etzegarate, Tolosa, Beasain, Ordizia, Andoain o Astigarraga: Una estructura de casi 30 metros de longitud y un peso total de más de 16 toneladas. Llevará 12 cámaras de lectura de matrículas y seguimiento del vehículo con luz infra-roja, 6 en cada sentido, y 12 antenas para lectura de los TAG y posicionamiento de los vehículos, también 6 en cada sentido. Asimismo, estará equipado con 6 detectores láser, tres por sentido que serán los que realicen la detección volumétrica para clasificar los vehículos.